


ZAKILIXUT



© Dlarigak

Gorritxo, Osasunaren azken fitxaketa

■ Nafarrek taldeko maskota aukeratzeko egin lehiaketa irabazi du Jesus Monrealek

OSASUNAKO lehendakari Javier Mirandak, datorren denboraldirako taldeak egin duen lehen fitxaketa aurkeztu zuen, atzo, jendaurrean, Taxoaren: *Rojillo* (Gorritxo) du izena, eta nafarra da, etxekoa. Enrique Martin entrenatzailearen konfiantza lortzeko, hala ere, gogor egin beharko du lan jokalaria berriak, futboleko aritzeko bere hankak motzegiak eta burua handiegia ez ote diren izanen galdetzen baitio- te Osasunako teknikariek euren buruari, etengabe.

Martinek eserlekuan uzten badu ere, ez zaio lanik faltako Gorritxori, Osasunaren izena eta irudia ordezkatzeko, eta Sadarreko giroa berotzeko sortu baitu Jesus Monreal artista iruindarrak. Talde nafarrak bere maskota aukeratzeko antolatutako lehiaketako irabazlea da Monreal, aurkeztutako 236 lanen artean berea hautatu baitzuten epaimahaiko kideek, joan den ostiralean.

«Irudi simple eta moderno bat egin nahi nuen, Osasunaren izaera ongi islatuko zuena. Jai giroa gogora ekartzen duen maskota da», azaldu zuen egileak, atzoko ekitaldian. Izan ere, Sanferminetako painelu gorria irudikatu nahi duen triangelu gorri bat da



Gorritxo bere aitarekin, Jesus Monreal artista iruindarrarekin.

Gorritxoren gorputza, eta, erdian, Osasunaren armaria dauka. Maskotak gorritxoaren galtzerdiak ditu hanketan, eta, besoak, urdin egin dizkio Jesus Monrealek, talde nafarraren koloreak nabarmentzeko. Buru handia egin dio, halaber, Monrealek maskotari, Iruñeko kilikiak gogora ekartzeko asmoz, eta, gainean, txapela jarri dio.

Oso pozik agertu zen atzo Monreal kazetarien aurrean, eta Osasunaren maskotatzat berea aukeratu izana beretzat «ohore handia» dela azpimarratu zuen, iruindarra eta Osasuna zalea ez ezik, talde nafarreko bazkide ere baita margolaria. Lehiaketa irabazteagatik, gainera, Tunisiara bi lagunentzako bidaia, 50.000 pezeta kirol arropatan eta datorren denboraldirako bi abonatu eskuratu ditu Jesus Monrealek.

Sadarreko giroa berotu
Oraingo paper gainean egindako marrazki bat besterik ez da Gorritxo, baina datorren denboral-

ditik aurrera, benetako panpina bilakatuko da, eta Osasunaren irudia daramaten produktu guztietan ez ezik, Sadarren ere ikusi ahal izanen dute zaleek, Martinen jokalaria animatzen. Horretarako, hainbat ukitu emanen dizkiote taldeko arduradunek Jesus Monrealek sortutako maskotari, «biziago» bihurtzeko asmoz.

Miranda lehendakariaren ustez, Sadarreko giroa berotu eta jokalariei indarra emanen die Gorritxok. Talde nafarrak azken jardunaldietan lortu dituen emaitza txarrak kontuan hartuta, datorren denboraldian baino gehiago, datorren asteen hasi beharko luke nafarren maskotak lanean, Osasunak datorren Liga Lehen Mailan jokatu nahi badu, behintzat. Litekeena da, hala ere, talde nafarra Bigarren Mailatik ateratzeko panpina bat nahikoa ez izatea.

Edurne Elizondo
IRUÑEA

kasu!

► Espetxetik Donejakue Bidera

Toledoko Ocaña I espetxeko zazpi preso kartzelako lau paretetatik urrutit dabilta egunotan, Donejakue Bidearen zati bat egiten. Astelehenean Lugoraino autobusean joan ziren, eta atzo estreinako etapa egin zuten oinez. Asmoa ostiralean Santiagora iristea da. Txango hau espetxeko arduradunei otu zaie, bidaia preso horientzat oso aberasgarria izan daitekeela uste baitute.

► Saudi Arabian telefono bidezko sexuaren kontra

Arrakasta handia dute Saudi Arabian telefono erotikorik. Satelite bidez era horretako eskaintza ugari iristen dira bertara, eta, itxura denez, gustura deitzen dute askok, batez ere gazteek. Jokaera hori ez dute begi onez ikusten bertako agintariek, ordea. Horregatik, Saudi Arabiako telefono konpainia dei horiek murrizteko neurri bereziak hartzen ari da.

► ONCEko zozketako saria berriz ere Gipuzkoara

Zorioneko dabilta oso azkenaldian Espainiako Itsuen Elkarte Nazionalako (ONCE) kupoak erosten dituzten gipuzkoarrak. Joan den ostiralean beste sari bat egokitu zen bertan, oraingo honetan Ibarra. 96.159 zenbakia izan zen saritua, eta, ondorioz, horren jabeak 120 milioi poltsikoratu ditu (4,8 milioi libera). Kupoi hori Imanol Regillaga saltzaileak saldu zuen. Urtea hasi zenetik Gipuzkoan 575 milioi pezeta utzi ditu zozketa horrek.

tolosa

Karabariak

- Irakurketa
- Aurkezpenak
- Argibideak
- Enbentzenak
- Komentuak
- Hurrengo sariak
- Komentuak
- Funtzioak

Adibidea: Irakurketa - Adibidea: Aurkezpenak

Tel: 943 48 84 85 - Fax: 943 48 84 86

TOLOSA